

Literatura ▸ LIBURUAK

Zakarrontzietako altxor bat

BIXENTE SERRANO IZKO

Rilke poeta alemaniarra-ri gogoia menderatu zion, harako 1914 urte hartan, txakur baten lar-ruan sartzeko premiak; txakur izaera lortu nahi, bai, baina mintzamen galdutxo gabe, txakur errailetatik lan artistikoaren gailurrera heltzeko asmoz. Bukowski, Rilkeren antipodetan egonda ere, txakur poeta dugu, kale-txakur jipoitua, bere esperientziekin bete egin zuena lan literario osoa: poesiak, ipuinak eta nobelak; *Satanen seme* ipuin bilduma hau lekuko. Ezagutzen genituen Bukowskiren poema antologia bat eta *Pulp* nobela, Josu Lartategik 1997 eta 2002an euskaraz jarriak. Orain, berriaz, Mikel Olano leitzarrarekin gaude zorretan.

Lan menperatzaileaz gogaituriko idazlea, mozkortia, putazalea, drogazalea, matxista, joko-apustularia, alderria, idazle anker-rra..., bazter literaturako topiko guztiak, *underground* arteko topiko guztiak, betetzen ditu Bukowskik, hala bere bizitzan nola obran eta idazkeran. Bazter mundu horretako bere eskarmentuak ditu beti hizpide: jipoituriko kale-txakurra kontari. Kontari hutsa, ez erruki ez deus eske, zakarrontziz zakarrontzi alderri dabilena sin-

pleki, bere bizimoduaren premien norabidean.

*Madarikatu*en mendekua ipuinak Brueghel Zaharraren koadro baten antza du, Los Angelesko Broadway kalean zehar zinemarako jarria mugimenduan; bilduma bere osoan friso halako bat da, Bosch eta enparauen margolanez irudiztatua, agerian jarri ere amerikarrak bultzaturiko bizimoduaren alderik baztertuenak; baina flandestar zahar haiengan ez bezala, inolako asmo moralizatzaile-rik ez dago Bukowskirengan. Idazleak pintatzen duen errealtatea bera dugu kritikoa. *Errealismo zikina* deitu zaio idazle honek gailurrera eramane duen eskola horri, baina *errealismo zikina* ere dei diezaiokegu: hor duzu Bukowskiren koadro biziduna, ez eskatu kontuak egileari, atera ezazu zuk zeuk iritzi kritikoa... horren beharrik baldin baduzu.

Ez omen du filosofiarik bere obraren atzetik. Existentialismoaz galdetu ziotenean, «Sartrearen puzkerra» zela erran zuen; eta haren filosofiaz galde, uanean uneko kontatu guraren arabera kontatzen zuela bertzerik gabe, zuzen-zuzen, biluzian. Irakurleak galde egiten dio bere buruari zergatik, zertarako, idatziko ote zuen horrelako tipo batek. Bada, *Aski eroa*

■ **'Satanen seme'**

Egilea: Charles Bukowski.

Itzultzailea: Mikel Olano.

Argitaletxea: Elkar.

Urtea: 2007.

ipuinan, honelako erantzuna ematen du protagonistak, berau fikzioan *Suizidaren kantak* nobelaren egile: «Idazle handiak sortarazten dituen zera da: sufrimenduari ihes egitea»; bertze ipuin batzuetan, euren buruaz bertze egin zuten idazle batzuk, madarikatuak edo arrakastatsuek, aipatzen ditu. Bukowski, aldiz, edadetua hil zen 1992an, berez, ez depresioak ez bere *bizi*en ondorioek hilda. Litekeena da pentsatzea, alkohol, tabako, bertzelako droga, puta eta joko-apustu zaletasunak adina indar izan zutela zinismoak eta idaz-

teko grinak, «sufrimenduari ihes egite» horretan. Argi dirudi: bere senen bizirauteko idazten zuen.

Ez metaforarik, ez lirikarik, ez erretorikarik, ez paisaia edo gogo aldarte deskripzioak (agertokiak eta giroa kontakizunera egokitze-ko doi-doi beharrezkoa denetik aparte), ez adjektibo sailik..., idazkera biluz-biluzia, apaindurarik gabea, zuzen-zuzen helmugari so, elkar eta barne-bakarriketaz jositako narrazioak, erramolde sinpleak baina adierazkorak, giro eta pertsonaiei dagokien hizkera arrunta (non, logikoki, giro jakin batean baizik ulertu ezin daitezkeen zenbait hitz joko edo erreferentzia agertzen baitira): estilo soil-soilari pertsonaien arteko harremanek eta egoera desberdinek ematen dizkiote, bikain eman ere, erritmoa eta tentsioa. Erritmoaren eta tentsioaren kudeaketan, bai eta batik bat bere errealitatea erakusteko hartu duen ikuspuntuan ere, dago idazle dohaintsu honen eskua. *Baina* bat jartzekotan, errepikakorrek suertatuko zaizkio agian irakurleari narrazio-erregistroak eta hainbat ipuineta-ko egoerak.

Rilke lortu izan balu txakur haren baitan sartzeko, mutut gelditu eta hil izan zatekeen koitadua, *Duinoren eresaki* eta *Sonetoak Orfeori* sortu gabe. Bukowskik, kale-txakurra berau, zabortegetan aurkitu zuen, eta guri eskaini, hezur-altxor hau.

>> bserrano@berria.info

■ **'Hegats', 40. zenbakia**

Argitaratzailea: Euskal Idazleen

Elkartea. Data: 2007-08ko negua.

Antzerkia du gai nagusi eta ardatz *Hegats* aldizkariak 40. zenbakian, eta Irune Berro BERRIAKO Kultura sailko kazetariak Ander Lipus aktore eta antzerkiaren arloko sortzaileari egindako elkarrizketa zabaldua eskaintzen du, Alaitz Olaizola eta Aitzpea Goenagaren antzerki lan txiki banaz, eta Xabier Mendi-guren Elizegi, Patri Urkizu, Eneko Olasagasti, Oier Guillian eta Karlos del Olmoren artikulua banaz gain.

■ **'Arrainen bazka'**

Egilea: Javier de Dios Lopez.

Itzultzailea: Harkaitz Cano.

Argitaratzailea: Artea. Urtea: 2007.

Gerra, eta ez bakea

BENAT SARASOLA

Mikhail Sholokhov Sobietar Batasuneko idazle ofizial kontsideratu izan da maiz, baina bere herrialdetik kanpo ere idazle estimatu izan da, 1965. urtean Literatura Nobel saria jasotzeraino. Batez ere *Don Barea* lanagatik ezagun, bere gaztarako ipuinen bilduma den *Don ibaiko ipuinak* liburu honek osatu du Literatura Unibertsala bildumako 133. alea.

Izenburuak berak aditzera ematen duen legez, *Don ibaia* inguruan kokatutako kontakizunak dira denak, kosakoen lurraldean, 1917ko iraultzaren ondorengo gerra-giroan. Ipuin gordin eta krudelak dira denak ere, tragediaz betetakoak. Gehienetan armada gorria eta zuriaren (kosakoei osatua batik bat) arteko enfrontamenduak deskribatzen dira, baina ekinzia armatuetan bainoago gerraren ondorio moraletan paratzen du bere arreta Sholokhov. Ipuin guztietan azaltzen da pertsonaiaren bat erabaki moral sakon bati aurre egin beharrean: aita batek bere burua salbatzeko semea

■ **'Don ibaiko ipuinak'**

Egilea: Mikhail Sholokhov.

Itzultzailea: Olga Martínez de Marigorta eta Roberto Serrano.

Argitaletxea: Alberdania eta Elkar (Literatura Unibertsala bilduma).

Urtea: 2007.

hil ez-hil deliberatu behar du (*Familia burua*), hil ez dezaten etsaia-ri barkamena eskatu-ez eskatu (*Estepa anil-kolorea*) eta abar. Ez da harritzeko, testuinguru honetan, heroia-eritika izatea narrazioetan gailentzen dena. Pertsonaiak euren idealen alde erailteko eta erailak izateko prest agertzen dira beti, ez dago salduke-

riarentzako zirrikiturik. Era berean, liderrarekiko miresmen eta hordidura irudikatzen da zenbaitetan, bereziki *Sasikoa* kontakizunean. Dena den, badaude egon zenbait elementu eredu honetatik kanpo geratzen direnak ere, esaterako *Odol arrotza* ipuinean.

Izan ere, ipuinok topiko askotatik aldentzen dira eta egitura nahiz garapen sinplekoak izana-geatik, mundu konplexu eta ez-este-reotipatu bat azaltzen dute. Narrazioak gordetzen duen distantziari esker, irakurlea ez da sutsuki identifikatzen gorriekin; izatez, badira narrazioak non protagonis-tak komunisten aurkariak diren eta ez diren gaiztoki deskribatzen. Alegia, Sobietar Batasunaren aldeko aldarri panfletarioak bilatzen dituenak ez ditu liburu hone-tan aurkituko.

Sarritan esaten da literaturak historia liburuek baino hobeto azaltzen ahal duena denbora bateko gertakariak; bada, seguruenik narrazio hauek horrexen adibide-tzat har litezke. Iraultza sobietar-rraren arazoetako bat, iraultze-ko nekazal-munduren mesfidantza, primeran azaltzen da

irudikatuta ipuin gehienetan. Adierazgarria da, esate baterako, ipuin bakar batean ere ez dena azaltzen burges edo langilerik, eta ondorioz, bertako liskar gehienak nekez sailka daitezkeela klase-gatza gisa.

Itzulpena dela eta, ezin uka zenbaitetan etsipen puntu batek hartu nauena. Inpresioa izan dut sarritan testuari aurrera egitea kontatzen zaiola, gehiegizko errefinamendu baten kariatzagian; eta batez ere, erabiltzen duen euskarra liburuaren gordintasunarekin bat ez datorrena. Areago, hitzaurrean itzultzaileek beraiek Sholokhov-ek erabiltzen duen hizkera herriaren eguneroko hizkera arrunta dela aipatzen dute, baina euskal irakurle-ak bertan topatuko duen euskarra ez dut uste gisa honetako denik. Hots, iruditu zait liburuaren itzulpena dena gehiegi nabaritzen dela.

Sobietar Batasunaren usaina edukitako ezer zuzenean gaitzes-teko halako joera bat egon da urte luzetan, baita arte munduaren baitan ere. Akaso, pixkanaka denbo-rak ematen ari den distantziak la-gundurik, momentu egokia da bertatik zer erreskatatu daitekeen ikertzeko, eta, adibidez, orduko li-teratur lan interesgarriak itzul-tzen hasteko, *Don ibaiko ipuinak* hau bezalaxe.

>> bsarasola@berria.info

■ **'Konstruktibismoa eta hezkuntza'**

Egilea: Mario Carretero. Itzultzailea:

Lontxo Oihartzabal. Argitaratzailea:

'Hik Hasi' aldizkaria. Urtea: 2007.

Azken hamarraldietan egin diren hezkuntza sistemetak eraldake-tek konstruktibismoa izan dute oi-narri. Oinarri horiek eskolatzee-ren eta psikologiaren arlokoak di-ra batik bat. Liburu honen xedea horiek irakasleei aurkeztea da. *Hik hasi* aldizkariak monografiko gisa plazaratu du itzulpena.